

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko 2026ko zerga kobratzea

Maria Trinidad Zarza Martínez Zambranako Udaleko alkate-lehendakariak, honako hau

Jakinarazten dut: 2026ko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2026ko ordainagiriak:

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epea: 2026ko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Epe exekutiboa: 2026ko abenduaren 16tik aurrera epe exekutiboari emango zaio hasiera, eta epe exekutiboko errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratuta dauden ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, oraindik helbideratze kontu berbera badute. Hala ez bada, udalari jakinarazi beharko zaizkio kontu korronte berriari buruzko datuak, 2026ko urriaren 10a baino lehen.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten zergadunek horretarako bidalitako ordainketa gutunarekin egin beharko dute ordainketa, banku erakundeetan, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidearen bitartez edo udal bulegoetan, indarrean dagoen aurreko arreta ordutegian.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2026ko irailaren 7a

Alkate-lehendakaria

MARIA TRINIDAD ZARZA MARTÍNEZ